

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### **Sei hileko lagapenen ordainketa-errola —2019ko lehen sei hilekoa— jendaurrean jartzea**

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2 artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita sei hileko lagapenen errola fiskala —2019ko lehen sei hilekoa—, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea—, aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3. artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Diru-sarrera hori ordaintzeko epea 2019ko martxoaren 22tik maiatzaren 22ra artekoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko otsailaren 8an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**